



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 30a

42 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, jarduera arriskutsuan aritzen diren enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Egiturazko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, azken bost urteotan atxilotu dituzten paperik gabeko etorkinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Kohesio funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Berriozarren lurrazpiko pasabidea eraikitzeko lanek eragindako trafiko arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Burlatako Askatasuna ikastetxeko garbiketa zerbitzuaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak” kontusailaren superabitari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Arradako Kontzejuko uraren edangarritasunar buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Euskaltzaindiarekiko akordioa izenpetu ez izanaren arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, hondakinen manipulazioak, Tratamientos MER, S.A. enpresak egindakoak, izan duen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, deskalifikatu diren babes ofizialeko etxebizitzaren kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, Garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta ordaindutakoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Matrikula kostuei eta udako ikastaroen inguruko beste alderdi batzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako aurreikusiriko jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Zangozako burdinazko zubiaren kontserbazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Zangozako saihesbideko bigarren fasean gertatutako kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Mendillorri eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa Lezkairutik barrena lotzen dituen errepideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Martzillan oinezkoentzako pasabide bat eraikitzeko eskaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, telelaguntza zerbitzuaren erabiltzailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, herrilanean jartzen diren eskulturek izaten duten adjudikazio-sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, farmazia berriak irekitzeagatik igorritako tasei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspe- nei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 15ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentariak galdera egin du. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Feoga-Bermearen bidez 19.000 milioiko diru-sarrera aurreikusi zen Feoga-2000 ekitaldirako (114,18 milio euro).

Azken bost urte hauetan dirusarrerek hurrengo bilakaera izan dute milioi pezetatan; hona jardueraka sailkatuta.

Kapitulua	Feoga 97	Feoga 98	Feoga 99	Feoga 00	Feoga 01
Belarki-laboreak	8.123	8.056	8.097	7.602	8.733
Azukrea	0	2	2	3	3
Oliba olioak	223	312	333	309	341
Bazka-landareak	39	1.437	1.501	1.537	1.154
Ehungintzarako landareak	45	9	21	33	19
Fruta eta barazkiak	433	1.721	1.618	1.325	947
Ardo eta mahastigintzaren sektorea	0	448	490	490	1.715
Tabakoa	0	75	85	97	83
Tabakoa	0	32	51	99	67
Esnea	12	0	0	0	0
Behi-aziendaren haragia	1.009	1.129	1.111	1.065	1.662
Ardi-ahuntzaziendaren haragia	1.902	2.210	2.756	2.520	2.205
Zerri-aziendaren haragia	0	0	8	6	4
Beste neurri batzuk	0	0	9	4	0
Elikadura programa	0	8	14	8	10
Kontrol neurriak	0	13	22	24	0
Errententzako laguntzak	49	0	0	3.854	4.510
Neurri osagarriak	163	269	200	0	0

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urriaren 25ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Jarduera arriskutsuan aritzen diren enpresei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak jarduera arriskutsuan aritzen diren enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du jarduera arriskutsuan aritzen diren enpresei buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2001eko urriaren 1ean onartu zuen hura tramitatzeari. Hona, Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Istripu larriek eragiten dituzten arriskuen kontrol neurriak uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuan daude araututa; dekretu horrek bi errege dekretuok utzi zituen indar gabe: Zenbait industria jardueretako istripu handien prebentzioari buruzko uztailaren 15eko 886/1988 Errege Dekretua eta aurreko hori aldatu zuen uztailaren 29ko 952/1990 Errege Dekretua.

Nafarroako sektore kimikoaren kanpoko larrialdietarako plana ekainaren 3ko 231/1996 Foru Dekretuak onetsi zuen; dekretu hori, geroztik, bertan ezarritako prozedurari jarraiki aldatu eta, horrela, 1254/1999 Errege Dekretura egokitu zen. Planak plan zuzendariaren izaera du; esan nahi baita industria arloko istripu handien prebentzioari buruzko araudia? egun, 1254/1999 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua? aplikatzen zaien industria edo establezimendu guztietako planek, betiere, aipatu den plan nagusi horren mende behar dutela.

1254/1999 Errege Dekretua onetsi aurretik, INQUINASA zen, Nafarroan, gai arriskutsuekin 886/1988 Errege Dekretuak ezarritako kopuru

beretan edo handiagoetan lan egiten zuena; kopuru horiek 1254/1999 Errege Dekretuak ere jasotzen ditu, I. eranskinaren 1 eta 2 zatietan.

Nafarroako sektore kimikoaren kanpoko larrialdietarako planak INQUINASA enpresaren kanpoko larrialdietarako plana hartzen du. Plan nagusi hori, halaber, 1254/1999 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua aplikatu beharreko industrien inbentarioak gora eginez gero, enpresa horien kanpoko larrialdietarako planekin osatu egingen litzateke.

Hori horrela, produktu kimikoak erabili edo gorde ditzaketan Nafarroako 150 industria ikuskatu dira, egiaztatu nahi izan baita, besteak beste, ea aplikatzekoa zaien 1254/1999 Errege Dekretua. Ikuskapen horien ondorioz, CLH, SA enpresa sartu da oraingoz inbentarioan.

Hala INQUINASAK nola CLHK, biek dituzte barneko larrialdietarako planak.

Arrisku kimikoen prebentzioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak lurraldearen antolamenduari buruzko neurriak edo establezimendu horien kokapenari buruzko neurriak bultzatu ditu, eta beharrezkoa izan denean, zuzenean berak hartu ditu neurriok:

– Comarca-2 industrialdearen azalera gutxitu egin da; eraikinen eta CLH, SA enpresako instalazioen artean 300 metro baino gehiagoko tartea izanen da. Halaber, erabiltzeko eta eraikitzeko mugak ezarri dira industrialdean, CLHtik 300 metro eta 600 metro bitartean.

– Iruñeko Udala premiatu da udal planean zenbait muga jar diezazkion hirigintza plangintzari INQUINASAREN inguruan, eta udalak, jarri, jarri ditu. Hain zuzen ere, ez-urbanizagarritzat jo du INQUINASAREN balizko arrisku puntuetatik 220 metrora arteko tartea; bestetik, arrisku puntu horietatik 320 metrora arteko tartean, mugatu egin dira zenbait erabilera; eta, azkenik, aipatu puntuetatik 632 metrora arteko tartean beste zenbait erabilera mugatu dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 15eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Europar Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzak ikergai hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean egitekoa den inkesta soziolinguistikoari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Inkesta egiteko lanak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak abuz-

tuaren 16an emaniko 161/2001 Ebazpenaren bidez adjudikatu ziren. Adjudikaziorako lehiaketa irekiaren prozedura eta horren ondoriozko baldintza plegua erabili ziren. Enpresa adjudikazio hartzailea DEMOSCOPIA, S.A. izan zen.

Inkesta Nafarroako populazioaren adierazkorra den lagin batean aplikatzen ari da, 15 urtetik gorako artean. Lagin teknikaz baliatzen ari dira, 2500 elkarrizketa eginez. Lagin hori publiko estrategikoei egindako beset 300 elkarrizketarekin osatzea dago aurreikusirik. Azterlana kalitatezko ikerketa batekin osatuko da, lan lan bileraren bitartez.

Lana amaitzeko epea aurtengo abenduaren 31n amaituko da eta une hauetan egiten ari da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 2an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña.

Egiturezko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Egiturezko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 15eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari

Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du egiturezko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna, idatziz, galdegileak eskatu bezala:

Gai horri buruz esan beharra dago Nafarroako aurreikusiriko zenbatekoak ezarri daitezkeela soilik erregioetako programetan edo erregio anitzeko programetan, berorietan gastua erregionalizaturik dagoelako, eta ez ordea hala ez dagoen programetan.

Aurrekoan oinarriturik honekin batera eskaintzen dugu honako hauei buruzko informazioa: 2

Helburuaren DOCUP eta 2 helburuaren kargurako aldi baterako laguntzak, 3 helburuaren programa operatiboa, Komunitatearen Ekimeneko Leader Plus Programa eta 1 helburutik kanpo dauden erregioetarako IFOPen DOCUP. Aipatutakoetan inbertsioa erregionalizaturik dago eta informazioa funtsen eta programen arabera multzokatzen da.

Estatuko administrazio orokorrak kudeatzen duen 3 helburuko erregio anitzeko programa operatiboari buruzko informazioa ez dugu eskaintzen kasu horretan inbertsioa ez dagoelako erregionalizaturik.

Komunitatearen Ekimeneko Equal, Interreg eta Urban programa operatiboek dagokienez, berriz, funts erregionalizatzerik ez badago ere, Nafarroako Gobernuak aurreikusi du gure erkidegoak 20.000.000 euro jaso dezakeela 2001-2006 urteetarako, hau da, 3.300.000 euro urtean.

Eskaini ditugun programa erregionalizazioan gauzatu behar diren jarduketan inguruan, azkenik, zenbatekoak programazio agiritan ageri direnak dira. Agiri horiek eskuragarri daude Nafarroako Gobernuaren web orrian, cfnavarra.es, Info-point-Europa atalean, "Actualidad" epigrafean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes.

PROGRAMAK/FUNTSAK					
2002. URTEA					
PROGRAMA			(Euroak)		
FUNTSAK	2 HELBURUAREN DOCUP	ALDI BATERAKO LAGUNTZAK 2 HELBURUA	3 HELBURUA	LEADER +	DOCUP
FEDER	11.470.688	1.604.491			
F.S.E.	603.712		9.499.996		
FEOGA-O				1.231.650	
IFOP					1.512.000*

* 2000-2006 eperako zuzkidura

Azken bost urteotan atxilotu dituzten paperik gabeko etorkinei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak azken bost urteotan atxilotu dituzten paperik gabeko etorkinei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo

Hernández andreak galdetu du azken bost urteotan paperik gabeko zenbat etorkin atxilotu dituzten eta horietako zenbati ireki zaizkien kanporatze espedienteak edo beren jatorrizko herrietara itzultzeko espedienteak? Erantzun gisa, jakinarazi nahi dizut Nafarroako Foruzaingoak ez duela paperik gabeko etorkinik bat ere atxilotu epe horretan, eta inmigrazioaren arloko eskumena Estatuko administrazioarena denez, horren esku dago etorkinak kanporatu edo jatorrizko herrietara itzultzeko espedienteen tramitazioa.

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin.

Kohesio funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Kohesio funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 15eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari

Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du kohesio-funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna, idatziz, galdegileak eskatu bezala:

Ezin da Nafarroako aurreikusiriko zenbatekorik eman, bi arrazoirengatik, gutxienez:

Lehendabizi, kohesio-funtsaren % 50, gutxi gorabehera, Estatuko administrazio orokorrak kudeatzen dituen eta erregionalizaturik ez dauden garraioen arloko jarduketarako delako. Baina horrek ez du esan nahi Nafarroak Frantziara izan beharreko irteera, autobia bidezkoa, adibidez, ez dela funts hauen onuren xede izanen, komunikazio ardatz transeuroparra da eta.

Bigarrenez, gainerako ingurumenaren arloko gaietarako erabiltzen den % 50ean bada tarte bat, garrantzitsuena, 400.000 milioi ingurukoa 2000-2006 urteetarako, Estatuko administrazio orokorrak kudeatzen duena eta erregionalizaturik ez dagoena. Beste bi tarteetan, autonomia erkidegoek kudeatutakoa, 300.000 milioi ingurukoa, eta toki entitateek kudeatutakoa, 200.000 milioi ingurukoa 2000-2006 urteetarako, onartutako proiektuei ematen zaie laguntza eta beraz aurkeztutako proiektuen eta horietatik onartutakoen mende dago. Proiektu horiek Ogasun Ministerioak urtero

egiten dituen deialdietara aurkeztu behar izaten dira.

Eman daitezkeen datuak, berriz, 2000-2001 urteetakoak dira, baita adierazi ere autonomia erkidegoen tartean:

a) 2000. urtearen amaieran aurkeztu eta Batzordeak 2001eko martxoaren 19an onartu zuen 7.601.600 euroko laguntza bat Nafarroako Foru Komunitatean hiri hondakinen arloko jarduketara proiekturako.

b) Ministerioak 2001eko maiatzaren erdialdean egindako deialdiaren ondorioz Jurramendiko (ipar-mendebaldea) Mankomunitateko hornidura proiektua aurkeztu zen eta Batzordeak onartzeko dago. Aurrekontua 1.382.585.457 pezetakoa da.

Toki entitateen tartean, urte horietarako, proiektuak aurkezteko ahalmena duten toki entita-

teek (50.000 biztanletik gorakoak) bi proiektu aurkeztu zituzten eta onartu egin ziren: Iruñeko udalak Argaren ibai parkearen bigarren zatia eta Erriberako Hiri Hondakin Solidoen tratamendurako Mankomunitateak hiri hondakin solidoen tratamendurako planta.

Azkenik, eta balizko deialdiei begira, 2002rako ez da oraindik ezarri Nafarroako Gobernuak zein jarduketa aurkeztuko dizkien Ogasun Ministerioari kohesio-funtsen bidez finantzatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes.

Berriozarren lurrazpiko pasabidea eraikitze lanek eragindako trafikoa arazoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Berriozarren lurrazpiko pasabidea eraikitze lanek eragindako trafikoa arazoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 22ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du iparreko ingurabideak eta Gipuzkoako etorbideak bat egiten duten biribilgunean trafikoa kontrolatzeari buruz. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak urriaren 15ean onartu zuen hura tramitatzea. Hona Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Iparreko ingurabidearen azpian, Gipuzkoako etorbide zeharkatzen duen tokian, lurrazpiko pasabide bat egiteko lanen kariaz, Bide Zerbitzua, Foruzaingoa, Iruñeko eta Berriozarko udaltzaingoen eta obraren adjudikazioa hartu zuen eraikun-

tza-enpresaren arduraduna bildu ziren bi mila eta bateko uztailearen hiruan lan horiek izanen zituzten ondorioak ebaluatu eta trafikoa gainera eragina ahalik eta txikiena izan zedin aplikatu beharreko neurriak zehazteko. Ildo horretan, jarduketa hauek zehaztu ziren:

1. "Eroskiko biribilgunea" delakotik obrak dauken tokira doazen bi erreiak eskuinera eraman eta horien zabalera 3 metrotara murriztea, kontrako norabidean, alegia, obretatik "Eroskiko biribilgunea" delakora doazen ibilgailuetarako zabalera berdineko beste bi errei lortu ahal izateko.

2. Berriozarko Udalak bando bat prestatu eta argitaratu zuen gomendatzeko ibilgailuek, herri horretatik ateratzean, ez ditzaten erabili obretan dagoen aldea, baizik eta Gola jatetxearen ondoan dagoen lotunea eta agustindarren eremura doan azpiko pasabidea. Horrez gain, gomendaturiko norabideak adierazteko seinale osagarriak prestatu eta paratu zituen.

3. Berriozarko eta Iruñeko udaltzaingoen batera aztertzea Berriozarko trafikoa agustindarren eremuko azpiko pasabidera bideratzeko aukera, Berriozartik heldu diren ibilgailuei lehentasuna emanez.

4. Obrako semaforoak zerbitzuan ez izatea, baina neurria berriz aztertu eta aldatzeko aukerarekin, trafikoa obretan zehar izan dezakeen bila-kaeraren arabera. Iruñeko Udaltzaingoak trabak jarri zituen semaforoen bidez arautzeko glorietako trafikoa, blokeatuko zelakoan.

5. Trafiko ugari dagoen orduetan (goizeko 8:00etatik 10:00etara, eguerdiko 13:00etatik 15:00etara eta arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara), trafikoa bi udaltzaingoetako kideek eta foruzainek erregulatuko dute, eta behar dena eginen da horien arteko koordinazioa behar bezalakoa izan dadin, taldeak prest eduki eta antolatzeko.

6. Komunikabideetan beste informazio kanpaina bat aurreikustea, obren ondorioz gertatzen diren garrantzizko arazoan berri emateko eta beste ibilbide hauek gomendatzeko:

– Berriozartik Iruñera Gola ondoko lotunean zehar.

– Berriainzko industriadetik Iruñera Gola ondoko lotunean zehar.

– Burlatetik Landabenera (ibilgailu arinak) Marcelo Celayeta etorbidean eta Sanduzelaiko glorietan barna.

– Iruñetik Berriozarrera mendebaldeko saihesbidetik.

7. Gomendutako ibilbide hauek obran paratutako seinaleen bidez ere adieraztea.

Erabakitako neurri guztiak aplikatu dira baina ez dira nahikoak izan trafikoa normalizazio erabatekoa lortzeko, bereziki trafiko ugari orduetan, ez baita erdietsi ibilgailuak bi erreitatzeko zeharkatzea obretan dagoen aldean "Eroskiko biribilgunea" delakora joateko.

Nolanahi ere, zirkulazioa ahalik eta arinena izan dadin, Foruzainak eta Berriozarko Udaltzaingoak trafikoa erregulatu dute Zortzikoko biribilgunean eta hala eginen dute obrek dirauten bitartean, batez ere lehen aipatutako ordu horietan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 6an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Induráin.

Burlatako Askatasuna ikastetxeko garbiketa zerbitzuaren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Burlatako Askatasuna ikastetxeko garbiketa zerbitzuaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 22ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du Burlatako Askatasuna ikastetxeko garbiketa zerbi-

tzaren egoerari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza zuzendari nagusiak apirilaren 10ean emaniko 327/2001 Ebazpenaren bidez baimena eman zen Burlatako "Askatasuna" BHIren ohiko garbiketa zerbitzua 2001erako kontratatze-ko lehiaketa publikoaren bidez. Litzitazio prezio gehienekoa 795.000 pezetakoa zen, hilean, BEZ barne. Ebazpen hori aurtengo apirilaren 30eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hezkuntza zuzendari nagusiak ekainaren 15ean emaniko 578/2001 Ebazpenaren bidez aipatutako kontratazioa adjudikatu zitzaion garbitasunean ordu gehien ematen zituen enpresari, tarteko eskaintza ekonomikoarekin.

Badakigu hasieran gertatu bide zirela arazo txiki batzuk kontraturiko zerbitzua ematean,

batez ere ez enpresa adjudikazio hartzaileak eta ikastetxeko zuzendaritzako ez zituztelako kontuan hartu zerbitzua arautzen zuen kontratuaren baldintzak. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Ikuskaritzaren esku hartzeari bideratu da egoera, argi utzi baititu zein diren alderdi bakoitzaren eskubide eta betebeharrak, zerbitzuaren kontratuan ageri ziren bezala.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 9an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña.

Adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Osasun kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari eta osasun gaietako eledun Isabel Arboniés Bermejo andreak, 2001eko urriaren 26an, aurtengo 21ean eginiko beste bat errepikatzen duen galdera bat egin du, adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Urriaren 4an eman zitzaion erantzuna galdera horri. Hona hemen testua:

“Aurrekontua betetzeari buruz egindako zazpi galderetatik bakar bati, laugarrenari –“1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietan Nafarroako Gobernuak bete duen aurrekontua adimen-gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonentzako Nafarroan kokaturiko egoitzetan, berekietan nahiz hitzartuetan, eta ekitaldi bakoitzean laguntza jaso duten pertsonen kopuru osoa”– erantzun ahal diogu, gainerakoak ez baitira Osasun Departamentuan dauden programei buruzkoak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentukoei buruzkoak baizik.

Nafarroako Gobernuak 2000ko ekainaren 12an hartutako Erabakiaren bidez gizarte eta osasun arloko koordinazio programa bat onartu zuten Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak, adimeneko gaixo kronikoentzako, eta bateko zein besteko zuzendari kudeatzaileari baimena eman zitzaien programa horretarako itunak izenpetzeko.

– Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak itun bat izenpetu du Jesusen Bihotz guztiz santuaren Senide Ospitalekoekin adimen gaixo kronikoak zaintzeko, egoitzetan. Nafarroako Osasun Zerbitzuak horren osagarri den beste itun bat izenpetu du osasun laguntzarako.

Egoitza laguntzadunetan (eta pisu babestuetan) dauden adimen gaixoentzako osasun laguntzarako itun horri buruzko datuak

Hauexek dira:

* Egoitzetako tokiak: 42 egoitza laguntzaduna

16 pisu babestuetan

* 1999. urtea: ez zen itunik izan.

* 2000. urtea: irailean osasun laguntza emateko ituna gauzatu zen.

– 3.116 egonaldi

– 7.273.976 pezetako aurrekontua bete zen

* 2001. urtea: maiatzaren 31ra arte 6.551 egonaldi gertatu dira eta betetako aurrekontua 14.772.698 pezetakoa da.

* Aurreikuspena da abenduaren 31rako egonaldiak 15.702 izanen direla eta gastua 35.454.448 pezetakoa.”

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko

Lehendabiziko puntuan adierazten zen bezala, galderaren zati bat erantzun gabe utzi genuen, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren aurrekontuko kontusailetan sartzen zelako.

Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko azaroaren 2an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari eta osasun gaietako eledun Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du adimen gaixoentzako programek izan duten aurrekontu-betetzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Etxeko laguntzako programak

Urteak	Emandako dirulaguntza	Laguntza jaso dutenak
1999	12.000.000	90
2000	12.000.000	101
2001	26.300.000	104

Aisialdirako eta kultur sustapeneko programak

Urteak	Emandako dirulaguntza	Laguntza jaso dutenak
1999	11.635.201	49
2000	12.032.266	144 (10 Tuteran)
2001	17.194.053	

Lan/zereginetako baliabideak eta enpresa normalizatuetan laneratzeko programak

Talluntxe 40 lanpostu

Aranzadi 35 lanpostu

Urteak		Emandako dirulaguntza
1999	Aranzadi	34.488.634
	Talluntxe	39.314.742
2000	Aranzadi	35.555.293
	Talluntxe	40.530.662
2001	Aranzadi	35.055.293 + 200.000
	Talluntxe	43.572.385 + 347.941

Laguntza jaso dutenak 97

Kontratuen kopurua enpleguko zentro berezietan 4

Enplegu programetan daudenen kopurua 21

Prestakuntza programetan daudenen kopurua 21

Laneratzeko programetan daudenen kopurua 6

Egoitza baliabideak, berekiak eta itunduak

Urteak	Tokiak	Aurrekontua
1999	-	-
2000	15	15.579.497 pezeta
2001	42 toki R.A.E.M. 4 toki P.T.	93.795.308 pezeta

Nafarroatik kanpoko egoitza baliabideak

Urteak	Emandako dirulaguntza	Laguntza hartu dutenak
1999	122.327.302	90
2000	125.096.642	85
2001	109.200.000	73 (orain arte)

Errehabilitazio psikosozialeko programak

Osasun Departamentuko programa bat da.

Familiaren atsedenerako programak

Urteak		
1999	Oporretako 4 programa	Atsedeneko 75 toki 13 begirale
2000	Oporretako 5 programa	106 erabiltzaile 19 begirale
2001	Oporretako 3 txanda	42 pertsona 9 begirale
		Pertsona bakoitza oporretako bi txandatan

Aurtengo batez besteko egonaldien dirusarrerak ezin izan dira aurreikusi baina gure ustez heldu den urtean familia atsedeneko aldi baterako dirusarrerak hartu ahal izanen dira.

Jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko urriaren 19an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda.

Aurrekontuko “Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak” kontusailaren superabitari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurrekontuko “Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak” kontusailaren superabitari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du aurrekontuko “Irakaskuntza ertain eta goi mailako ikasketetarako beka eta laguntzak” kontusailaren superabitari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna, idatziz, galdegileak eskatu bezala.

1. Departamentuak ekitaldi bakoitzeko beken planifikazioa aurreko urteko urtarrilean egiten du, artean ezagutzen ez direla ikasle nafarren matricula datuak eta zenbait beka deialdiren emaitzak: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarena, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzetako maila ez unibertsitarioetako ikasleentzat eta unibertsitateko ikasketak beren autonomia erkidegoan egiten dituzten ikasleentzat, eta unibertsitateko ikasleentzako mugikortasun beka, hau da, beren autonomia erkidegotik kanpo ikasten dutenentzat.

Datu horiek erabakigarriak dira, izan ere Nafarroako Gobernuaren beka deialdia aipatutako deialdi horien osagarri delako eta nafarrak, espainiarrak izaki, horietara aurkeztu ahal eta behar dira. Ikasle nafar batek beka erdiesten badu bi deialdietan –ministerioarenean eta Nafarroako Gobernuarenean–, Nafarroako Gobernuak bien arteko alde positiboa baizik ez du ordaintzen. Ministerioak uko egiten badio beka ikasle bati eta Nafarroako Gobernuak onartu, beronek osorik ordaintzen dio.

Ministerioak, urtez urte, beka eskuratzeko errenta gehienekoak igotzen dituela jabeturik eta mugikortasun beken modalitate berriaren berri izatean, 2000/01 ikasturteko beken deialdirako Nafarroako Gobernuak % 9,77koa gehitu zuen errenta gehienekoak (1999ko K.P.I.ren % 3,3aren alde-

an), bekaren onuradunen kopurua berdina edo handiagoa izan dadin. Era berean, laguntza mota guztien zenbatekoak handitu zituen, bereziki eta garrantzizko kopuruan, garraio eta jantokikoak.

Guztiarekin ere, bekadunen kopurua ez da lehengoa, are gehiago, gutxitu egin da. Horren arrazoia da beka jaso lezaketenen kopurua jaitsi egin dela. Horren egiaztagarri, derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko maila ez-unibertsitarioetan matrikulaturiko ikasleen kopurua; 1999/2000 ikasturtean 16.157 ikasle izan ziren batxilergoan eta lanbide heziketan, eta 2000/01 ikasturtean, berriz, ikasleak 15.364 izan dira. Beraz, 793 ikasle gutxiago.

Unibertsitateko ikasleei dagokienez, Nafarroako unibertsitateetako ikasleak 22.058 izan ziren 1999/2000 ikasturtean, horietatik 13.107 nafarrak, eta 2000/01 ikasturtean, berriz, ikasleak 21.325 izan dira (12.310, nafarrak). Hortaz, 797 ikasle gutxiago.

Beraz 1.590 ikasle gutxiago dauzkagu beka eskatzeko. Horri gehitzen badiogu ministerioaren beken kopurua handitu dela, batez ere mugikortasun beken kasuan, ez da harritzekoa beka eskatzen dutenen kopurua eta halatan, emandako beken ere, jaistea.

Une hauetan ordaindurik daude 498.143.993 pezeta 2000/01 ikasturteko beken deialdian, eta 86.425.933 pezeta daude ordaintzeko. Superabita, beraz, 222.630.074 pezetakoa da, aurrekontuko aldaketak kontuan hartu gabe.

2. 1999/2000 ikasturteko deialdian 7.853 eskari aurkeztu ziren, eta 2000/2001 ikasturtean 6.832. Horietatik 4.388 onartu dira eta 2.444 ukatu, xehe-tasun hauekin:

	Beka kopurua		
	Eskariak	Onartuak	Ukatuak
Irakaskuntza	5.628	3.273	2.391
Jantokia	2.810	1.345	1.495
Garraioa	875	284	591
Bizitokia	2.674	1.682	992
Berezia	412	65	347

Noski, gerta daiteke ikasle batek beka jasotzea kontzeptu batean bano gehiagotan eta ukoa jasotzea beset kontzeptu batzuetan.

3. Baztertzeko arrazoi nagusiak hauexek izan dira:

– 1.054 kasutan familiako per cápita errentaren gehienekoa gainditzeagatik.

– 904 kasutan aurreko ikasturteko ikasgai edo kreditu gehiegi edukitzeagatik gainditzeko.

– 513 kasutan familia bizi den tokitik ikastetxea dagoen tokira 5 km baino gutxiago egoteagatik, kasu horretan ez baita bidezkoa garraio, jantoki edo bizitokiko beka ematea.

– 464 kasutan maila errepikatzeagatik edo ez gainditzeagatik.

– 460 kasutan ikastetxe publikoan, itunduan edo diruz lagundutakoan, matrikulaturik egoteagatik eta, ez izateagatik bidezkoa irakaskuntzako beka ematea, beste kontzeptu batzuegatik eman ahal izan bada ere.

– 293 kasutan per capita errenta 362.000 pezetatik gorakoa izatea, beraz laguntza berezia ez da bidezkoa, beste kontzeptu batzuegatik eman ahal izan bada ere.

– 277 kasutan gizarte laguntzaren unitatearen edo udaleko gizarte zerbitzuen unitateak emandako egiaztagiririk ez aurkezteagatik, beraz laguntza berezia ez da bidezkoa, beste kontzeptu batzuegatik eman ahal izan bada ere.

– 213 kasutan garraio eta jantoki laguntzak ez dira bateragarriak bizitokiko laguntzarekin; azken oneratu eta beste biak ukatu egin dira.

– 167 kasutan maila osoan edo deialdiak onartzen duen gutxieneko kreditu kopuruan matrikulaturik ez egoteagatik.

– 99 kasutan Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen duen unibertsitateko garraioaren edo ez-unibertsitarioaren onuraduna izateagatik. Kasu horretan ez da bidezkoa garraio edo bizitokiko laguntza ematea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 16an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Arradako Kontzejuko uraren edangarritasunari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Arradako Kontzejuko uraren edangarritasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 15eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, 2001eko irailaren 29an, galdera egin du Arradako Kontzejuko uraren edangarritasunari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Arradako hornidura-ura Bardeako Ubideko bilgune batetik hartzen da.

Bilgune horretatik, ura dekantaziorako 2 baltsatara ailegatzen da, lurrazpiko hodietan barna, eta erregulatze biltontziaren ondoan dagoen beste baltsa batera, lur azaleko erreten baten bidez.

Lehendabiziko bi baltsetatik ura lurrazpiko hodi batetik joaten da erregulatze biltontziraino. Biltontzirako sartunean, hirugarren baltsaren hodiak bat egiten du beste horrekin.

Lehen aipatutako hodi horren bidez, ura biltontzira sartzen da, bazter batean dagoen kutxeta moduko baten barrenetik pasatuz. Kuxeta horretatik, hodi lodiago baten bidez, ura biltontzira joaten da grabitatez sarrerako kutxetaren hormetako baten beheko aldetik.

Biltontziaren gainezkabidea ere ura sartzeko kutxetan dago.

Biltontziaren ondoko baltsan sobran dagoen ura, berriz, gainezkabidea eta biltontziaren barreneko aldea lotzeko albo batean dagoen hodian barna sartzen da biltontzira.

Klorazioa eguzki-plakek sortutako energiaz baliatzen den kloragailu elektriko batek egiten du.

2000 eta 2001. urteetan, iraila barne, klorazio kontrolak egin dira ia egunero (% 99,5), eta emaitza hauxe izan da: 2000. urtean, hornidurako urak hondar-kloro askea izan zuen egunen % 86,6an eta egunen % 99an 2001. urtean.

2000. urtean eta 2001eko irailera arte, Osasun Publikoaren Institutuak 12 lagin hartu ditu. Emaitzak taula honetan ikus daitezke:

Lagina hartu zen eguna	Lagina hartu zen tokia	Emaitza	Hondar-kloro askea	Edatekoa ez izateko arrazoia
2000/01/17	Harategia	Ez edatekoa	1,5	Koliforme osoak (1 ufc)
2000/02/02	Almintearen etxea	Edatekoa	1,5	
2000/02/02	Hornidurako iturria	Edatekoa	1,5	
2000/04/11	Taberna	Edatekoa	0,3	
2000/05/31	Taberna	Edatekoa	0,8	
2000/08/02	Hornidurako iturria	Edatekoa	1,5	
2000/09/11	Taberna	Ez edatekoa	0,4	Uhertasuna eta mikrobio k. (7,3 unf/koliforme osoen pres.)
2001/01/29	Taberna	Ez edatekoa	0,5	Uhertasuna (6,5 unf)
2001/05/30	Taberna	Edatekoa	0,3	

Lagina hartu zen eguna	Lagina hartu zen tokia	Emaitza	Hondar-kloro askea	Edatekoa ez izateko arrazoia
2001/07/31	Taberna	Ez edatekoa	0,0	K. fekala koliforme osoak, 30 ufc koliforme fekalak 2 ufc)
2001/09/04	Taberna	Ez edatekoa	0,9	Uhertasuna (6,2 unf)
2001/10/24	Taberna	Ez edatekoa	2,0	Uhertasuna (39,9 unf)

Jendearen kontsumorako edateko uren arau tekniko eta sanitarioen arabera, uhertasunaren parametrarako gehieneko kontzentrazioa 6 ufc-koa da eta koliforme oso eta fekaletarako, berriz, 0 ufc-koa.

Adierazitako emaitzetan ikus dezakegu 12 lagin horien artean

- lagin batek baizik ez zuen hondar-kloro askerik.

- 6 lagin edateko urarenak ziren eta beste 6 ez edatekoarenak. Edateko ez zirenetatik 4 kasutan uhertasun gehiegizkoa zen arrazoia, ekaitzak bezalako ondorio meteorologikoetatik heldu litekeena, hornidura lur azaleko uraren bidez egiten baita; arazoa konponduko litzateke ura biltontzira sartu aurretik iragazteko sistema bat ezarriz. Edatekoa ez zen uraren laginetatik 2tan kontaminazioa mikrobiologikoa zegoen (lagun batean uhertasunarekin batera) eta kontuan harturik lagin horietan kloro askea zegoela, ematen du kontaminazioa kanpoko arrazoiek eragindakoa dela.

- Análisi bakar batean antzeman zen kontaminazio fekala, hondar-kloro askerik ez zegoen kasuan, hain zuzen.

Azken datu hori kenduta, gainerakoan zuzentzat jo daiteke hornidura.

2000/07/31n eginiko analisisian kloro askerik antzeman ez zenez, Murillo el Cuendeko Udaleri eta Arradako Kontzejuari jakinarazi zitzaion, abuztuaren 16an, 1138/1990 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera banatutako urek beti izan behar dutela hondar kloro aske edo konbinatua, eta horretarako etengabe eta modu egokian klortuko direla, uretako kloro askearen maila 0,2 eta 0,6 ppm artekoa izan dadin.

Ondoren kontrolak egin dira arazoaren konponbidea bilatzeko, eta analizatutako laginetan hondar-kloro askea antzeman da, baina ez kontaminazio fekalik, beraz egoera bere onera itzuli dela pentsatzen dugu.

Hauexek dira ondorioak:

1. Arradako hornidura uraren arazo nagusia uhertasuna da.

2. Uhertasuna ez da berez osasun arazo bat, are gehiago kontuan hartzen badugu, egiaztatu ahal den bezala, kasu gehienetan zehazturiko kontzentrazioak indarra duten arau tekniko-sanitarioetan ezarritako muga baino hamarren batzuk altuago baizik ez dira.

3. Uhertasunak, zeharka, osasun arazoak ekar ditzake uraren desinfekzio egokia oztopa dezakeelako eta beraz, kontaminazio mikrobiologiko edo/eta fekala agertzea eta hornidurako sareko uretan kloro askearen kontzentrazioa txikia izatea eragin dezakeelako. Ez da horrelakorik gertatu, ordea, ura behar bezala desinfektatzen delako eta behin baino ez dira gairitu aldi berean uhertasunaren eta kontaminazio mikrobiologikoaren parametroak.

4. Laginak hartzean nola Arradako Kontzejuak hilean behin egin eta Osasun Publikoaren Institutura igorritako klorazio kontroletan egiaztatu denez, uraren desinfekzioa ongi egiten da eta antzemandako kloro askearen kontzentrazioak batzutan gomendatutakoa baino altuagoak izan dira, erabiltzaileendako arriskurik gabe, nolahi ere.

5. Uhertasuna desagerraraziko duen tratamendu sistema bat (hondarrezko iragazkiak) jartzea garestia da, bai instalazioa bai mantentze-lana. Herria hartzen duen Goi Aragoiren Mankomunitaterako aurreikusirik dago proiektu hori baina abian jartzeko oraindik.

Ez dugu pentsatu zehapen espedientea irekitzea Murillo el Cuendeko Udaleri, ura banatzen duen entitatea eta, beraz, Arradako kontsumorako ur horniduraren erantzule den aldetik, edo Arradako Kontzejuari ur horniduraren inguruko eskumenak espresuki eskuordeturik baldin badauzka. Irizpide hori bera da toki entitate guztiekin erabiltzen dena inoiz edo behin arauak betetzen ez direne-

an, kasu honetan bezala. Aitzitik, irizpide nagusia da egoerak bideratzea lehenbailehen, osasunerako arriskurik ez gertatzeko, eta konponbidea uren horniduraren ardura dutenen esku gelditzea, toki entitateen esku, alegia, Osasun Publikoaren Institutuaren sostenguari laguntzako organo teknikoa baita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 16an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

Euskaltzaindiarekiko akordioa izenpetu ez izanaren arrazoiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Euskaltzaindiarekiko akordioa izenpetu ez izanaren arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña

Errazti Esnal andreak galdera egin du Euskaltzaindiarekiko akordioa izenpetu ez izanaren arrazoiei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Euskaltzaindiarekin izenpeturiko aurreko hitzarmena aztertu ondoren komenigarritzat hartu da erakunde horrekin mintzatzea, beste hitzarmen bat egiteko, bi alderen artekoa soilik, Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artekoa, alegia, gure foru erkidegoaren izaera juridiko eta historikoa argi adieraziko duena.

2. Luze gabe hitzarmen hori taxutu ahal izanen dugulakoan gaude, bai Euskaltzaindiaren bai Nafarroako Gobernuaren interesekoak diren lanak finantzatzea xedetzat harturik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 19an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña.

Hondakinen manipulazioak, Tratamientos MER, S.A. enpresak egindakoak, izan duen kostuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak MER hondakinen manipulazioak, Tratamientos MER, S.A. enpresak egindakoak, izan duen kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari

Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du MER hondakinen manipulazioak, Tratamientos

MER, S.A. enpresak egindakoak, izan duen kostuari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez du "Tratamientos MER, S.A." izeneko enpresa bat egotearen berri.

2. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eskumenen artean ez dago MER hondakinak, freskoak nahiz beste edozein egoeratan, Nafarroako Foru Komunitatetik kanpora eramateko baimena ematea edo ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakolari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 15ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro.

Deskalifikatu diren babes ofizialeko etxebizitzaren kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak deskalifikatu diren babes ofizialeko etxebizitzaren kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko azaroaren 5eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak galdera egin du 13/2001 Foru Legearen babesean deskalifikatu diren babes ofizialeko etxebizitzaren kopuruari buruz.

Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. 2001eko ekainaren 8az geroztik, 13/2001 Foru Legea oinarri hartuta, 23 etxebizitza deskalifikatu dira. Etxebizitza baten deskalifikazioari uko egin zaio eta 11 etxebizitza daude deskalifikatzeko tramitean.

Halaber, partikularrek dokumentazioaz horniturik egin dituzten kontsultetatik 100i erantzun zaio idatziz. 64 kasutan, etxebizitza 13/2001 Foru Legeak aurreikusten duenaren barruan sartzen dela onartu da, 10 kasutan ez daudela adierazteko eta 26 kasutan dokumentazio osagarria eskatu da iritzia eman ahal izateko.

Nolanahi ere, beharrezkoa da kontuan hartzea zenbait alderdi deskalifikazioen kopurua ebaluatu aurretik. Alde batetik, 13/2001 Foru Legeak gartzen duen erregelamenduak, zehazki deskalifikazioarako kasu bereziei dagokienez, ez du oraindik

indarra hartu. Aurreikusirik dago arau hori azaroaren amaieran ematea argitara NAOn. Zenbait pertsonak adierazi dute departamentuan noiz argitaratu zain daudela babestutako etxebizitza deskalifikatu ahal izateko.

Bestalde, estatistiken arabera, udan izaten da deskalifikazio kopuru txikiena eta epe horixe da, hain zuzen, galderaren xedea.

Hortaz, departamentuaren ustez, 13/2001 Foru Legeak indarra hartzeak eragin duen deskalifikazio kopuruan islatu den erantzuna modu arrazoi-tuan ebaluatzeko behar adina denbora ez da igaro oraindik. Denbora epe hori urtebetekoa izan beharko da, gutxienez.

2.Deskalifikazioa baztertzeko arrazoia izan da bizitokia lana zela-eta aldatu izana behar bezain ongi ez justifikatzea eta ezezko erantzuna jaso duten 10 kontsulta idatzien kasuan, berriz, ez dela

frogatzerik izan agiri bidez 13/2001 Foru Legean aurreikusiriko kasuetan egotea.

3. Nafarroako Gobernuak kapitulu bat erantsi dio urriaren 1eko 276/2001 Foru Dekretuari, 13/2001 Foru Legean babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako ikuskapen araubidea garatzeko. Nafarroako Gobernua "lagatako etxebizitzak eskaini, baloratu eta berriz esleitzeko prozedurari buruzko erregelamendua" prestatzen ari da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 20an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

Garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko azaroaren 5eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak galdera egin du garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1. Garapenerako lankidetzarako azken bost urteotan eman diren laguntzek zenbat egiten dute eta urteko barne-produktu gordinaren zer ehuneko dira?

2. Zer erakundek jaso dituzte dirulaguntza horiek, zenbat jaso du bakoitzak, zer proiektu motek jaso dituzte dirulaguntzak eta zer herrialde-takoak dira?

3. Nafarroako aurrekontu orokorretan garapenerako lankidetzaren helburu duten kontusail edo kontusailetatik zer ehuneko bete da?

4. Urteren batean laguntzen % 100 ez bada bete, zergatik ez da bete?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren programak arau hauetan izan du oinarri azken bost urte hauetan (1997tik 2001era):

a) Ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duena.

b) Martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa. 2001. urtean onetsi dela kontuan harturik, ez du eraginik izan azken bost urte hauetako deialdietan.

c) Martxoaren 9ko 95/1992 Foru Dekretua, gobernuz kanpoko erakundeei garapen bidean

dauden herrialdeekin proiektuak gauzatzeko ematen zaizkien dirulaguntzak ezartzen dituena.

d) Maiatzaren 20ko 222/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua eratzten duena.

e) Abenduaren 30eko 476/1996 Foru Agindua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateak dauden gobernuz kanpoko erakundeek garapenerako lankidetzak proiektuak gauzatzeko eta arlo horretan sentsibilizazio lana egiteko dirulaguntzen deialdia, 1997koa, egiten duena.

f) Abenduaren 12ko 396/1997 Foru Agindua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, garapenerako lankidetzak proiektuak gauzatzeko eta arlo horretan sentsibilizazio lana egiteko dirulaguntzen deialdia, 1998koa, egiten duena.

g) Urtarrilaren 13ko 3/1999 Foru Agindua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, garapenerako lankidetzak proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia, 1999koa, egiten duena.

h) Abenduaren 2ko 194/1999 Foru Agindua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, garapenerako lankidetzak proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia, 2000koa, egiten duena.

i) 2000ko azaroaren 28ko 80/2000 Foru Agindua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, garapenerako lankidetzak proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia, 2001ekoa, egiten duena.

• Azken bost urte hauetan emaniko dirulaguntzen zenbatekoak hauexek izan dira:

	Nafarroako Medicus Mundiren proiektuak	Programa orokorra	Larrialdietako laguntzak	Saharar herriarentzako laguntza berezia	Lankidetzak programa, guztira
1997 Aurrekontukoa	290.440.000	1.201.601.000	3.227.000		1.495.268.000
Baimendua	290.440.000	1.184.639.200	52.000.000		1.527.079.200
%	100%	99%	1611%		102%
1998 Aurrekontukoa	290.440.000	1.273.062.000	3.227.000	30.000.000	1.596.729.000
Baimendua	290.440.000	1.269.701.600	63.227.000	29.735.400	1.653.104.000
%	100%	99%	1959%	99%	104%
1999 Aurrekontukoa	290.440.000	1.386.819.000	35.000.000	10.000.000	1.722.259.000
Baimendua	290.440.000	1.383.279.000	70.244.000	870.000	1.744.833.000
%	100%	99%	201%	9%	101%
2000 Aurrekontukoa	290.000.000	1.500.200.000	35.000.000	3.000.000	1.828.200.000
Baimendua	290.000.000	1.494.947.900	36.281.021	0	1.821.228.921
%	100%	99%	104%	0%	100%
2001 Aurrekontukoa	290.000.000	1.500.200.000	35.000.000	15.000.000	1.840.200.000
Baimendua 2001eko azaroaren 12an*	251.451.647	1.495.132.563	35.000.000	15.000.000	1.796.584.210
%	87%	99%	100%	100%	98%

* Aurreikusirik dago baimentzea Medicus Mundiren lerroaren % 100, orokorra eta larrialdietako laguntzak gehitzeko tramiteak egiten ari dira. Beraz, aurreikusten da urte akaberan baimendutako guztiaren % 100era iristea gutxienez.

Zenbateko hauek (baimenduak, 2001ean salbu, aurrekontua erabili baita aurreko taulako oharrean adierazitako arrazoiarengatik) Nafarroako BPGaren ehuneko hauei dagozkie, eguneko pezetatan (1997tik 1999ra bitarteko datuak Nafarroako Estatistikaren Institutuak emanikoak dira, 2000 eta 2001ekoetan, berriz, Nafarroako Estatistika Institutuak ezta Nazionalak ere ez dutenez datu errealik, kalkuluak eta aurreikuspenak baizik, zenbatetsi egin dira extrapolatuz, Nafarroan espero daitekeen BPGaren hazkundearen arabera.

Urtea	1997	1998	1999	2000	2001
BPGaren %	0,11%	0,12%	0,12%	0,12%	0,11%

Diruz lagundutako proiektuak honi atxikirik doan zerrendan ageri direnak dira (laguntza jaso duen entitatearen izena, proiektua, herrialdea eta 1997tik 2001era bitarte emandako zenbatekoak daude zehazturik).

Lehen aipatutako zenbateko osoak (baimenduak) eta egiaz betetakoak (zerrendakoak) ez dira erabat bat heldu, dirulaguntza behin onartu eta baimenduta entitateek justifikatu behar dutelako proiektuak egiaz gauzatu direla eta, ondoren, jus-

tifikatu gabekoa ez da ordaintzen edo gastatu ez dena itzuli egin behar izaten da. Hori guztia dirulaguntza eman eta urtebetera, gutxienez, gertatzen da, eta beraz diru hori ezin da berreskuratu proiektu berrien finantziatorako.

Hasierako aurrekontua eta baimendua ez dira bat heldu deialdien ebazpenetan ezartzen joan den baremoa gainditzen zuten proiektuak onesten zirela, aurrekontuan zegoen diru kopurua kontuan harturik. Larrialdietako laguntzen kasuan bat ez etortzea horien izaeraren beraren ondorioa da (hondamendi naturalak edo giza gatazkek eraginda), aurreikusi ezina. Nolanahi ere, garapenerako nazioarteko lankidetzaren programak aurrekontuaren (baimendua) % 100 baino gehiago bete du, eta ekitaldi honetan gauza bera gertatzea espero da.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko azaroaren 15ean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda.

(Oharra: Aipatu agiria foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta ordaindutakoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Batasuna Parlamentuko Taldeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta ordaindutakoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, 2001eko ekainaren 5ean galdera egin du Osasun-

bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta 2000. urtean eta 2001eko lehen hiruhilekoan ordaindutakoei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Honi atxikirik dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktibitate-osagarria dela-eta 2000. urtean eta 2001eko lehen hiruhilekoan ordaindutakoen taula.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 19an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu agiria foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Matrikula kostuei eta udako ikastaroen inguruko beste alderdi batzuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak matrikula kostuei eta udako ikastaroen inguruko beste alderdi batzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko azaroaren 5eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Foru Komunitateko Gobernuak antolaturiko udako ikastaroei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Matrikulen kostua:

– Hemingway: “Fiestak” 75 urte. Matrikula arrunta 20.000 pezetakoa izan zen, Unibertsitateko lagun eta ikasle ohientzat 15.000 pezetakoa eta Unibertsitateko kideentzat 10.000 pezetakoa.

– Hidrologia kudeaketa eta planifikazioa. Matrikula arrunta 20.000 pezetakoa izan zen, Unibertsitateko lagun eta ikasle ohientzat 15.000 pezetakoa eta Unibertsitateko kideentzat 10.000 pezetakoa.

– Eguzkiko energia fotovoltaikoa hirugarren milurtekoari begira. Matrikula arrunta 20.000 pezetakoa izan zen, Unibertsitateko lagun eta ikasle ohientzat 15.000 pezetakoa eta Unibertsitateko kideentzat 10.000 pezetakoa.

– Animalien osasunetik gizakien osasunera. Matrikula arrunta 20.000 pezetakoa izan zen, Unibertsitateko lagun eta ikasle ohientzat 15.000 pezetakoa eta Unibertsitateko kideentzat 10.000 pezetakoa.

– Europako Batasuna: gaurkotasunezko zenbait gai. Matrikula doakoa izan zen.

– Euskal historia eta kultura. Hurbilketa bat. Matrikula arrunta 4.000 pezetakoa izan zen eta ikasleentzat 2.000 pezetakoa.

– Inmigrazioa. Matrikula arrunta 5.000 pezetakoa izan zen eta ikasleentzat 2.500 pezetakoa.

– Heldu den Iruña: XXI. mendeko hirigintza. Matrikula doakoa izan zen.

– 90etako zinea. Matrikula 5.000 pezetakoa izan zen.

– Idatzizko kazetaritzaren joera berriak. Matrikula 5.000 pezetakoa izan zen.

– Errealitatea eta zuzenbidea. Matrikula 5.000 pezetakoa izan zen eta doakoa zuzenbideko ikasleentzat.

– Kirola. Jarduna eta ikuskizuna. Matrikula arrunta 10.000 pezetakoa izan zen eta ikastetxeko ikasleentzat 7.000 pezetakoa.

– Inmigrazioa. Fenomeno soziologikoa eta juridikoa. Matrikula arrunta 17.500 pezetakoa izan zen, irakasleentzat 12.000 pezetakoa eta ikastetxeko ikasleentzat 6.000 pezetakoa.

– Elikadura arazoak: ebaluaziotik tratamendura. Matrikula arrunta 17.500 pezetakoa izan zen, irakasleentzat 12.000 pezetakoa eta ikastetxeko ikasleentzat 6.000 pezetakoa.

– Oliba olioia. Osasunetik ekonomiara. Matrikula arrunta 17.500 pezetakoa izan zen, irakasleentzat 12.000 pezetakoa eta ikastetxeko ikasleentzat 6.000 pezetakoa.

– 2001. Espazioaren Odisea bat. Matrikula doakoa izan zen.

– Faraonen Egipto Historian zehar. Matrikula arrunta 5.000 pezetakoa izan zen.

2. Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Unibertsitateak, Culturak Millenium Fundazioak eta Nafar Ateneoak antolatutako ikastaroak finantzatu ditu, guztira 14.000.000 pezetako kostuarekin, gehi beste 5 milioi ikastaroen publizitaterako eta programak egiteko. Nafarroako Gobernuarentzat kostua, guztira, 19 milioi pezetakoa izan da, honela zehaztuta:

a) Maiatzaren 31ko 123/01 Ebazpenaren bidez Nafarroako Unibertsitatearentzako 11.700.000 pezetako dirulaguntza baimendu zen.

b) Maiatzaren 31ko 121/01 Ebazpenaren bidez Culturak Millenium Fundazioarentzako 1.300.000 pezetako dirulaguntza baimendu zen.

c) Maiatzaren 31ko 122/01 Ebazpenaren bidez Nafar Ateneoarentzako 1.000.000 pezetako dirulaguntza baimendu zen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Iruñeko UNEDeko ikastetxe elkartuaren eta Tuterako UNEDeko ikastetxe elkartuaren jardueren babesle Nafarroako Kutxa Fundazioa eta Iruñeko Udala izan dira.

3. Aipatutako ikastaroak gaztelaniaz egin dira. "Animalien osasunetik gizakien osasunera" izene-

koaren zati batzuk ingelesez eta frantsesez eman ziren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 22an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña.

Parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako aurreikusiriko jarduketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako aurreikusiriko jarduketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko azaroaren 5eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2001eko urriaren 26an, galdera egin du Parkinson gaixotasuna duten pertsonen laguntzarako aurreikusiriko jarduketari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Parkinson gaixotasuna dutenei laguntzeko aurreikusirik dituen jarduketak izanen dira gaixo bakoitzak behar dituenak, haren patologiaren, egoeraren eta bilakaeraren arabera eta hura tratatzen

duen neurologoak egiten duen ebaluazioan oinarriturik.

Gaixo hauei laguntzeko neurri berriak hartu behar ote diren galdetuz gero, erantzuna da Osasun Departamentuak ez duela bestelako neurririk aurreikusi, Nafarroako 2001-2005 urteetarako II. Osasun Planean aurreikusirikoak salbu.

Osasun arloko beste entitate edo administrazioekin gai horretarako itunik ba ote dagoen eta gaixo horiek beharko luketen ebakuntza dela-eta pentsaturik dauden irtenbideen inguruan, berriz, erantzuna da badela itun bat, Donostiako Quirón Klinikarekin Parkinson gaixotasunaren tratamendu kirurgikorako, hau da, neuroestimuladore bat ezartzeko eta horrela Parkinson duten gaixoen bizi kalitatea hobetzeko, tratamendua egokia den kasuetan. Erietxe hori aipatutako teknika hori erabiltzen duten onenetako bat da, nazio mailan eta nazioartean, esperientzia eta tratamenduaren emaitzak direla eta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 19an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Zangozako burdinazko zubiaren kontserbazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Zangozako burdinazko zubiaren kontserbazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak galdera egin du Zangozako burdinazko zubiaren kontserbazioari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Egin al du Nafarroako Gobernuak azterlanik zubi horren egoerari buruz? Hala baldin bada, zer ondorio atera du?

2001eko urriaren 30ean Tafallako Zentroko buruak, hau da, Zangoza hartzen duen barrutiko arduradun teknikoak, zubiaren azterketa egin zuen, eta haren ondorioz honi atxikirik dagoen txostena prestatu zuen, zeinak agerian uzten baitu zubiaren egituraren itxura ona, orokorrean.

2. Halakorik egin ez badu, ba al du zubi horren segurtasunari buruzko azterlanik egiteko asmorik?

Lehen esandakoa gorabehera, jarduketa osagarri gisa, langile espezializatuek eginen dute beste ikuskapen zehatzago bat.

3. Nafarroako Gobernuaren ustez, segurua al da zubi hori? Ba al dago arrazoirik Zangozako biztanleak kezkatuta egoteko?

Eskura dugun informazioaren arabera esan dezakegu Zangozako metalezko zubia segurua dela eta ez dagoela kezkatutarik egoteko motiborik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 22an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Zangozako saihebidetako bigarren fasean gertatutako kalteei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Zangozako saihebidetako bigarren fasean gertatutako kalteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak galdera egin du Zangozako saihebidetako bigarren fasean gertatutako kalteei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1.- Noren ardura da trafikora zabaldu eta 45 egunetan aipatu saihebidetako errei oso bat behera etortzea?

Aurreikusterik ez zuen egoeratzat har daiteke, sakoneko geruza freatikoak, antzematen gaitzak, daudelako eta euri ugariren ondorioz lubeten oinarria busti eta luizi bat eragin dutelako toki zehatz batean.

2.- Noiz egingen ditu Nafarroako Gobernuak hori konpontzeko obrak?

Eginik daude.

3.- Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak erantzukizunak eskatzeko lardaskeria hori egin duenari?

Hasteko esan beharra dago herrilan hori erakitzeke lana ezin dela lardaskeriatzat hartu

Bestalde, gertaerak ikusirik ez dago hirugarrenei erantzukizunik eskatzeko arrazoirik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 22an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Mendillorri eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa Lezkairutik barrena lotzen dituen errepideari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Félix M^a Taberna Monzón jaunak Mendillorri eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa Lezkairutik barrena lotzen dituen errepideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Mendillorri eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa Lezkairutik barrena lotzen dituen errepideari

buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalarekin batera, egoera hori berehala konpontzearen zerbait egiteko?

2. Zer jarduketa eta zer epe aurreikusi du errepide hori dela eta?

Errepide hori ez dago Nafarroako Errepideen Sarean eta beraz ez da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ardurapekoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 22an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Martzillan oinezkoentzako pasabide bat eraikitze eskaerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Martzillan oinezkoentzako pasabide bat eraikitze eskaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Martzilla-Villafranca errepidean oinezkoentzako pasabide bat eraikitzeari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1 Ba al du Herrilan Departamentuak Martzillako Udalak eginiko eskaeraren berri, hau da, Mar-

tzilla-Villafranca errepideak Aragoi ibaia zeharkatzeko duen zubi ondoan oinezkoentzako pasabide bat egiteko eskaeraren berri? Izan al du inongo hartu emanik Martzillako Udalarekin?

2 Zer iritzi du departamentuak obra horri buruz?

3 Ba al da eperik obra hori egiteko?

4 Ezezkoan, zer arrazoi edo oztopo daude eskatutakoa ez egiteko?

Martzillako Udalak Aragoi ibaiaren gainean oinezkoentzako pasabide bat eraikitze ustez egin duen eskaeraren berri ez du izan Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, ez modu ofizialean ez bestelakoan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 22an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Telelaguntza zerbitzuaren erabiltzailei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Cas-tillejo Hernández andreak telelaguntza zerbitzuaren erabiltzailei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 30ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Cas-

tillejo Hernández andreak galdera egin du telelaguntza zerbitzuaren erabiltzailei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Zenbat pertsonak erabiltzen du telelaguntza zerbitzua eta zein izan da azken bost urteotan zerbitzuak izaniko bilakaera?

LARRIALDIETAKO TELEFONO ZERBITZUAREN ERABILTZAILEAK

URTEA	ZENBAKIA
1997	445
1998	2.076
1999	2.583
2000	3.451
31.10.2001	3.879

Jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Herrilanetan jartzen diren eskulturek izaten duten adjudikazio-sistemari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak herrilanetan jartzen diren eskulturek izaten duten adjudikazio-sistemari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko ekainaren 20ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du herrilanetan jartzen diren eskulturek izaten duten adjudikazio-sistemari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer departamentuk izan du lan horiek esleitzearen ardura?

Errepideak egiteko obra handi batzuetan esleipenerako erabiltzen diren irizpideetako bat ekarpen estetiko osagarriarena da. Horrela, lizitatzailerak egoki iruditzen bazaie, obraren ingurunea edertu eta egokitzeko ekarpen estetikorako jarduketak egiteko konpromisoa hartzen dute, exekuzio materialaren aurrekontuaren % 0,5eko gehieneko zenbatekoan. Apaintzeko elementua esleipen hartzaileak ordaintzen du, administrazioaren kontraprestaziorik gabe. Kontratu hartzaileak eskaintzen duen konpromiso gehigarria da.

2001. urtea baino lehen, obraren zuzendaritzaren ardura zuten Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko langileek aukeratzen zituzten egileak eta lanak.

Data horretatik aitzina, ordea, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua eta Kultura Zuzendaritza Nagusia (Nafarroako Museoa) betetzen dute zeregin hori, egilea eta gaia hautatuz eta obraren enkargua eginez. Ondoren, adjudikazio hartzaileak zuzenean egiten dio ordainketa Nafarroako Gobernuak hautaturiko artistari.

2.- Zer esleipen-sistema aukeratu da? Esleipen bakoitzeko baldintza-orriak eskatzen dira, baita horietako bakoitzaren zioak azaltzea ere, eta, lehiakide bat baino gehiago izan denean, lehiakide bakoitza zehatz dadila.

Egun hiruzpalau artistari gonbita pertsonala igorri egiten da, zehazki, Nafarroako Museoren iritzi apaindu nahi den tokirako eta gairako, haien ezaugarriengatik eta ibilbide profesionalagatik egokiak izan daitezkeenak kontuan harturik.

Gonbita onartuz gero, bizpahiru zirriborro bidaltzen dituzte, erabili beharreko materialak, lanaren prezioa, entregatu eta jartzeko epea, etab. Zehaztuta.

Datu guzti horiekin egokiena hautatu eta enkargatu egiten da.

3.- Zein izan da lan bakoitzaren kostu banaketa?

1. zatian emandako erantzunean adierazi bezala, lanek ez dakarte kosturik Nafarroako Gobernuarentzat.

4.- Zer pertsona izan dira esleipen-hartzaileak Zergatik?

Egileen eta apaingarrien zerrenda hau da:
"Pelotari" (N-111; Arostegui etorb.) Rafael Huerta
"Induráin" (Atrabiako etorb.) Beatriz Fernández
"Caballos" (N-121-A; Belate) Ramón Ruiz Lloreda

“Rayos de Sol” (N-111; Zizur Nagusia)	Luis Alberto Eslava	“Torso de guerrero” (Lizarrako saihezbidea)	Faustino Aizkorbe
“Pentágono real ilusorio” (N-I autobia)	Enrique Salamanca	“Romería de San Miguel” (Azpirotz)	Del Río
“Encuentro” (N-I autobia; Arabako muga)	Josetxo Santos	“Cubos” (Iparraldeko autobia)	Del Río
“Rebaño de cabras” (Sakanako autobia)	José Expósito Garde	“Basajaun” (N-121-A; Larrakaitz)	Carlos Ciriza
“Trepadoras” (Olazti; N-I)	Patxi Galán	Bigarren gaia aurreko ataletan erantzunik dago.	
“Paisaje” (Olazti; N-I)	Patxi Galán	Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.	
“Botellas” (Dos Hermanas)	Del Río	Iruñean, 2001eko azaroaren 23an.	
“Sokatira” (Sunbillako saihezbidea)	Del Río	Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti	
“Pajarita” (Lizarrako saihezbidea)	Josetxo Santos		

Farmazia berriak irekitzeagatik igorritako tasei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak farmazia berriak irekitzeagatik igorritako tasei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urriaren 12ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, 2001eko urriaren 29an, galdera egin du farmazia berriak irekitzeagatik igorritako tasei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

1. Farmazia irekitzea eskatu dutenek ordaindu duten tasa izan da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren

27ko 7/2001 Foru Legean ezarritakoa, hau da, 29.949 pezeta.

2. Gaur egun 173 farmazia baimentzeko ebazpena dago emanik.

Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Foru Legean eta 197/2001 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat, gutxienekoak beterik daude.

“Gutxienekoen” irizpideari jarraikiz, farmazia baimendu bat ireki zen Altsasun 2001eko azaroaren 19an.

Farmazietarako baimenak eman dira gutxienekoen esparruan baimendutako farmazia berriak artean irekitzeko daudela, foru legeak ez baitu eskatzen irekirik egotea “gutxienekoak” betetzat emateko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	